

## Egun ilunak gogoan

**E**guna ilun dago gaur. Etxeko hamar leihoak eta lorategiko beiratea apaintzen dituzten lihozko gortinak edozein eguzki izpiren arerio direla eta argitasunak etxe honetan sarrera aspaldidanik erabat galarazita duela dirudi, eta saiatu, saiatzen den arren, ez dauka gurean geraterik. Joan den udaberrian arrebak Turkiatik ekarritako gortinak, estimu handian ditudanak, gogotsu ari dira argitasunarekin borrokan azken hilabeteotan. Berrehun eta hogeita hamazazpigarren eguna da gaur.

.....

Atsegin dut Dorletaren masusta usaina. Aldarte onean jartzen nau eta sarri gosea ere sorrarazi izan dit. Eskertzen diot gosearena egia esan, aspaldian gaizki jaten ibili bainaiz eta hiruzpalau kilo galdu ditudala ere esango nuke. Amarekin batera neguan Bilbon erosi nituen eta soinetik kendu barik darabiltzadan panazko frakak loka samar ditut, eta gerrikoaren beharra dute orain. Gaur ere goizeko bederatziak egin-eginetan etorri da etxera, egunero legez. Sukaldean dagoen kukua bere habiatik bederatzigarrenez irten orduko, Dorletaren oinetakoek zapaldua zuten dagoeneko atondoko parketa.

Masusta usain leun eta bitxiak edozein gidatuko zukeen bere aldamenera. Nigana etorri aurretik etxe inguruko basoetako sasiak arakatzen ibili dela dirudi, eta sasiotan hazi berriak diren masusten zukuarekin jolasean ibiltzeagatik tindaturik ekarri dituela eskuak, eta beso eta paparrean igurtzi eta igurtzi ibili dela denbora batez, usaina bere azal finean itsatsita geratu den arte.

Eguna ilun dago gaur eta ilea batuta ekarri du Dorletak. Goizeroko musua eman didanean ez dut bere ile kizkurrak eragindako kili-kilirik sentitu.

Berrehun eta hogeita hamazazpigarren gau ilun honetan ere Dorleta nire alboan oheratu da, eta eskuko atzamarrak laztandu eta laztandu ibili zait, lotan geratu naizen arte. Hurrengo goizean bere takoi hotsek iratzarriko nautela jakiteak amesgaiztoak uxatzen ditu, eta haur nintzeneko loan murgiltzen naiz.

Azaroak ilun darrai, baina azken denboran bihotzean sentitzen dudana bizipozak erraz egiten dio gain belztasun honi. Masusta usainarekin eta takoi hotsekin nahasirik, atsegin dudala ere esango nuke.

Gure etxean telefonoak ez du sarritan jotzen. Aurreko kalean bizi den Heliodorok deitu ohi du larunbat eguerdian, herriaren erdialdean dagoen supermerkatuara doala jakinarazteko, bertako zerbait behar izatekotan ekarriko didala esateko, beretzat ez dela arazo behin eta berriro errepikatzeko. Horregatik, erne jartzen naiz telefono txirrina entzutean, dardarka ere bai, telefonoaren beste aldetik berri txarren bat iritsiko den beldurrez.

- Blahmir Mujib jaunarekin hitz egin nahi nuke.
- Bai, neu naiz. Esan – erantzun diot.
- Arratsalde on. Ospitaletik deitzen dizut, etzi goizeko hamarretan egokitu dizugu hitzordua.
- Etzi, goizeko hamarretan. Ederto
- (...)
- Ba eskertzen dizut deia.
- Arratsalde ona izan.
- Agur, bai.

Egun bi barru ebakuntza egingo didatela esateko deitu didate, Gasteizko Txagorritxu ospitalean, eta zehaztapen hauek eman: ate nagusitik sartuta ezkerretara dagoen lehenengo igogailua hartzeko eta hirugarren solairuan gelditzeko; bertan, eskumatara, seigarren atea jotzeko eta, hori bai, ordukoa izaten ahalegintzeko, mesedez; autoan etortzekotan zertxobait aurreratzeko denbora aldetik, goizetan oso txarto egoten dela aparkatzeko; hala ere, idazkaritzan galdetzeko zalantzaren bat izanez gero, edozein izanda ere.

Eguna ilun dago gaur eta beldur naiz. Ez dut ia afaldu. Zuntzezko zereal batzuk jaten saiatu naiz, on egingo didatelakoan, baina ez naiz gose. Katilua erori zait lurrera, eta zerealak alfonbran zehar barreiatu dira. Kontuz-kontuz garbitu dut. Biharko ebakuntzagatik da hau guztia. Bai, normala behar du izan.

Txirrinak jo du. Nire anaia nagusia da, Rafa. Nire bila dator, eta Gasteizera lagunduko dit.

- ¡Buenos días por la mañana!
- Ez oihukatu horrenbeste, Rafa, ermita aldekoak ere esnatu egingo dituzu.
- Bueno, zaude lasai. ¡Menudo genio!. Hemen gosalduko dugu, edo... nahiago ospitaleko kafetegian? Niri berdin zait, Dorletak hemen ere jarriko dizkigu ogi xerra batzuk mermelada eta gurinarekin. Nik pare batekin nahikoa dut.
- Nik kafesne bat hartuko dut.

- Hobe ezki-ura hartuko bazenu, *Blahmy*, zutik ere ezin zara egon eta.
- Hartuko nuke gustura, baina usaintze hutsak okadak eragiten dizkit.
- Nik xerrak y marchando.

Rafa umore onean dago beti eta eskertzekoa da, batez ere, gaur bezalako egunetan. Medikuarenera egin ditudan bisita guztietara berarekin joan naiz, nerbioak lasaitu eta bere baikortasuna kutsatuko didalako esperantzarekin, akaso. Baina gaur ez da horrela izan. Rafaren umore paregabea ere ez da gai nire nerbioak lasaitzeko.

- Buenas tardes, caballero.
- Hola, buenas tardes, euskeraz ere moldatzen naiz.
- Ederto, barkaidazu.
- (...)
- Erantzi oinetakoak eta etzan hor. Zurekin etorri denak itxarongelan egon beharko du.
- Bai, ongi da.
- Lasai hartu, ez gara asko luzatuko. Badakizu horrelako kasuetan zer esaten den... hondartza zoragarri batean pentsatzeko...
- (...)

Dorletaren usaina gogoratzen lokartu naiz.

Datorren martxoan urte bete egingo du lantegian istripua izan nuenetik. Egia esan, ez geunden ogibide batek eskaini ahal dituen baldintzarik onenetan, baina eskolako derrigorrezko bigarren maila ere falta izanda, asko gehiagorik ezin nuen eskatu. Egia esan, asko nion eskertzeko lan horri. Zoritxarreko egun batean azidoak begietara salto egin eta ikusmena erabat galdu nuen. Ezbeharra gertatu eta lehendabiziko egunak gogorrak izan ziren oso. Medikuarenera bisita luzeak eta, batez ere, nahitaez beste norbaiten beharra izatea gauza txikienetarako ere mingarria egiten zitzaidan.

Aseguruak, orduan, etxeko beharrak egiteko pertsona bat izango nuela jakinarazi zidan. Pertsona hori hamaika hilabete egon da nire ondoan. Inork baino hobeto zaindu, lagundu eta mimatu nau Dorletak, inoiz inork egin ez duen moduan. Hasiera batean nire burua infernuaren atarian ikusi banuen ere, egundo pentsatuko ez nuen moduan apaindu dizkit egun ilunak.

.....

Imaz medikuak deitu dit gaur goizean, zorionak emateko. Ebakuntza uste bezain ondo joan dela esan dit. Eta eskerrak ere eman dizkit gaixo ona izateagatik. Neuk ere eskertu diot deia.

Arraro samar sentitzen naiz orain. Dorleta gaur ez da gurean azaldu, baina ikusi dut ez dela nitaz ahaztu. Deika ibili da antza, baina nahasita ibili naiz, eta erantzunik jaso ezeean erantzungailuan utzi dit mezua: *“ez dakit mugikor hori zertarako erosi duzun. Pozten naiz, txotxolo. Asko poztu naiz. Jakin, ordea, ni ere zorte onean nagoela. Zure ebakuntzak izan duen arrakasta jakin bezain pronto, beste nonbaiten behar nautela esan didate. Gutxi dakit, Bruselan da, udan igerilekuan jauzi txar bat egin ondoren elbarri geratu dela gizagaixoa, eta ezer gutxi gehiago. Badakizu, gaur hemen eta bihar han, inoiz ezin da jakin, idatziko dizut”*.

Argitu du egunak, sendatu naiz. Gaurtik aurrera Istanbuletik ekarritako lihozko gortina sendoek ere ez dira gai izango eguzki izpien sarrera galarazteko.

Osatu zait ikusmena, gaixotu bihotza.